

noaua

**Ostiral honetan
abiatuko da
Kultur Bira**

**Zumarteren
ikasturte amaierako
kontzertuak**

**Aranerreka,
zikin berriz**



**Usurbilen, Aginagan eta Zubietan eskainiko da
Zirimaran izena emateko epea
ekainaren 18an amaituko da**

HHI-EPA USURBIL HELDUEN ESKOLA

Matrikula epea

ekainaren 22tik 30 arte

(aldeaz aurretik telefonoz hitzordua eskatu 943 37 64 43- 943 36 66 08)

• HEZKUNTZA OROKORRA

(Oinarrizko kultur formakuntza: Euskara, Ingelera, Gaztelania, Irakurketa, Idazketa.

Kalkulazio hastapena eta hobekuntza. Oinarrizko informatika. Memoria lantzeko joko linguistikoak eta joko matematikoak. Natur Zientziak. Geografia. Historia eta historiarekin erlazionaturako mugimendu artistikoak...)

• DBH-ko titulua (4 hilabeteko ikastaroak)

• GAZTELANIA ATZERRITARRENTZAT

• IRTEERA DIDAKTIKOAK URTEAN ZEHA



ARGIBIDEAK: 943 36 66 08 info@epalasarate.eus

noqua

jarraitu gure sare sozialak



www.noqua.eus



AURREMATRIKULA

Maiatzak 31 - Ekainak 18



Administrazioa eta Kudeaketa



Energia eta Ura



Instalazioa eta Mantenua



Fabrikazio Mekanikoa



Elektrizitatea



Hartu hitzordua!!!

943 364600

www.lhusurbil.eus

Albisteak iruditan

“Ortodontzia-aparatua galdu dut”

E kaineren 2an izan zen, asteazkena-ekin. Aldizkaria inprentara bidali eta biharamunean, mutil bat etorri zen NOAUA!ko bulegora. Kezkatu samar sumatu genuen. Motxila kendu eta paper bat atera zuen bertatik. Aldizkarian publikatu ote zitekeen galdetu zigun. Noski, baietz. Koaderno batetik hartutako orri bat zen, eta ohar hau zekarren: “10 urteko mutil bati ortodontzia-aparatua galdu zaio. Herrian norbaitek aurkituko balu, deitu 600 768 570 telefono zenbakira”.

Kiroldegian edota udal liburutegian kartel bana jartzeko iradokizuna egin genion. Ondo hartu zuen proposamena. Motxila bizkarreratu eta etorri zen tokitik

joan zen. Hurrengo aldizkaria plazaratu arte itxaron gabe, oharrari argazki bat atera eta sare sozialetan zabaltzea otu zitzaigun. Twitter eta Instagramen ohiko zabalkundea izan zuen. Facebook-en aldiz, gure irakurleek ondo baino hobeto erantzun zuten. Berehala hasi ziren gure mezua partekatzen. 24 orduko epean 110 aldiz elkarbanatua izan zen. NOAUA!ko albiste batek sekula ez du horrelako zabalkunderik izan. Hala ere, mezu pribaturik ez zaigu iritsi. Ez Facebooketik, ezta gainontzeko sare sozialetatik. Paperean zabaltzen ari gara orain. Ea horrela, mutilaren ortodontzia-aparatua agertzen den. Deskuidoan topatuko bazenu, arestian aipatu dugu interesatuaren kontaktua. Asko poztuko litzateke.



24 orduko epean 110 aldiz elkarbanatua izan zen ohar hau. NOAUA!ko albiste batek sekula ez du horrelako zabalkunderik izan Facebook-en.

Laburrean

Eremu horian segitzen dugu

Aste hasieran igoera txiki bat izan da Usurbilen detektaturiko Covid-19 kasuetan. 3 kasu astelehenean, aurreko egunetan 0 edo kasu bat. Astearte honetan 206,09an zen intzidentzia-tasa. Eremu horian jarraitzen du Usurbilek.

Covid-19a dutenentzat, hondakinen bilketa berezia

Covid-19a duen norbait izanez gero etxean, Atez Ateko bulegora deitzea eskatzen du Udalak (900 776 776), hondakinak aparte biltzeko. “PCR probaren lehenengo emaitzaren zain bazaude, ez atera hondakinik”, eskatzen du Udalak.

Enrique Abril errebote txapelketa, bertan behera

Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak bertan behera utzi du Enrique Abrilen omenezkoa, “errebote txapelketa amaitzeko zailtasunak daudelako”. 2021-22 denboraldirako inskripzio-epea laster zabaltzekotan dira.

noaua

Kultur Elkarte
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkarte@noaua.eus /// www.noaua.eus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkariako koordinatzailea:
Imanol Ubeka.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Diseinua: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeka, Aritz Lasarte.
Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaua.eus

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Ainhoa Azpirotz Eizmendi

Izaten dira isilean eta modu xumean lana egiten dutenak, inurriak bezala, normalean titular handietan eta argazkietan ateratzen ez direnak. Eta ia gehienetan, helburu oneko egitasmoak eta pertsonak izaten dira horrelakoetan aritzen direnak. Halakoxeak iruditzen zaizkit odol-emaileak, beren odola behar dutenentzat ematen dutenak. Miresteke moduko ekarpena egiten dutela iruditzen zait. Elkartasun eta borondate ikaragarriko keinua.

Usurbilen bi hilean behin izaten da odola emateko aukera, hileko lehen astelehenetan anbulatorioan. Beno, azken urtean, pandemia dela-eta, anbulatorioaren partez Udarrigi ikastolan prestatu dute lekua, eta herriko odol-emaileen elkarteko kideen partez Gipuzkoako Odol-Emaileen Elkarteko kideek bideratu dute. Gutxi gorabehera 40 emaile inguru biltzen dira bi hilean behin.

Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteko zuzendari Sabin Urzelaik galdera bat egiten zuten berriki Gipuzkoako Hitzan egin dioten elkarriketa batean: “Gu ez bagara odol-emaileak, nolatan pentsatzen dugu guretzat odola egongo dela?”. Arrazoi du. Norbaitek organo bat behar duenean ulertzen dugu zain egon beharra, organo hori



“Irudian 2019an omenduak. Ederra litzateke etorkizunean argazkilariak atzera eta atzera joan behar izatea bildutako odol-emaileak argazkian kabitzen ez direlako”.

AINHOA AZPIROTZ

“Gu ez bagara odol-emaileak, nolatan pentsatzen dugu guretzat odola egongo dela? Arrazoi du galdera hori egiten digunak”

emango dion inor topatu arte. Aldiz, ospitalean ebakuntzaren bat edo beste zerbait egitera joan eta odola eman behar baldin badigute, ez zaigu burutik pasa ere egiten odolik ez denik egongo. Normalean bai, odola egoten da, baina norbaitek eman duelako. Eta hori ez genduke ahaztu behar.

Gipuzkoan biztanleen %3-4k ematen omen du odola, eta asko omen da, munduan ez omen dago batez besteko hori daukaten toki asko. Baina, hala ere, gutxi da, oso oinarritzak eta inportantea den ekarpena baita. Odol-emaile gehiago

egotea edonorentzat da mesedegarria, inork ez baitakigu noiz behartuko garen. Orduan, zergatik ez egin odol-emaile? Zergatik ez egin hori besteen-gatik? Bi hilean behin, ez da hainbeste.

Seguraski gurasoak edo inguruko beste norbait odol-emaileak dutenak jakingo dute zer den odola ematea, zergatik ematen duen gertuko horrek, zein garrantzitsua den eta zer balore duen egiten duen ekarpen horrek. Ikusten ez dutenak, ordea, ez dute jakingo. Agian ikastolan nolabait adierazi beharko litzaieke haur eta gazteei etorkizun batean (18 urtetik aurrera) odola emateko aukera izango dutela eta zein garrantzitsua den. Seguru odol-emaile batzuek gustura azalduko liekeela hori dena. Akaso medikuek -analisiak ikustean baldintzak betetzen dituzten gazte eta helduei odola emateko gomendioa

egin beharko liekete. Lanbide eskola eta lantegi batzuetara joaten dira eta bertan ematen dute odola langileek eta ikasleek.

Egia da edozeinek ezin duela eman. 18 urtetik 70era bitartekoek, 50 kilo baino gehiago pisatzen dutenak eta osasun baldintza batzuk betetzen dituztenak eman dezakete. Eta kontatzen hasita, asko dira baldintza horiek bete eta eman dezaketenak. Seguru Usurbilen ere bi hilean behin 40 baino gehiago izan gaitezkeela. Seguru urteko argazkia egiterakoan gazte gehiago egon daitezkeela. Ederra litzateke argazkilariak atzera eta atzera joan behar izatea bildutako odol-emaileak argazkian kabitzen ez direlako.

Ez dute titularrik eta argazki handirik izango agian, baina ekainaren 12an omenduko dituzte Usurbilen aurrean lau odol-emaile: batek 25 aldiz eman du odola, bigarrenak 40 aldiz, hirugarrenak 50 aldiz eta laugarrenak 75 aldiz. Urteroko bazkaririk ez dute egingo pandemia egoera dela-eta, baina sikiera hamaiketako batekin eskertuko zaie egindako ahalegina eta izan duten borondatea eta esku zabaltasuna. Kiroleko podiumean urrezko, zilarrezko eta brontzezko dominak ikusten dira. Hemen denak dira urrezkoak eta ohorezkoak.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpirotz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Luis Aranalde

Kima

MASAJE LEKUA

·KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA

Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

Zuen publizitatea hemen

943 360 321
publizitatea@noa.eus

Urbilek pertxak birziklatzeko sistema bat jarri du martxan

Urbilek, bere inguruko erakundeekin batera, kudeaketa arduratsua eta jasagarria sustatzen jarraitzen du. Ekintza berriaren helburu nagusia da Urbilgo dendetan bildutako pertxei bigarren erabilera bat ematea.

Pertxak birziklatzeko sistema bat jarri dute abian Kooperarekin batera. Lankidetzaren helburua da enpresa-jardueraren barruan jasagarritasuna sustatzea, merkataritza-gune ko lokalek erabiltzen ez dituzten pertxei bigarren aukera bat emanez.

Edukiontzia berezi bat ipini dute Urbilen

Pertxak errazago biltzeko, Koopera-Caritasek edukiontzia berezi bat jarri du zentroan, pertxak jasotzeko. Edukiontzia horiek Gipuzkoan dauden 5 Koopera storeen artean banatuko dira, eta bertatik gehien behar dutenentzat donazioa egingo dute. Ekimen hau martxoan abian jarritako Jatorria



Helburua da Urbilen erabiltzen ez dituzten pertxei bigarren aukera bat ematea.

EDUKIONTZIA BEREZI BAT

**Pertxak biltzeko,
Koopera-Caritasek
edukiontzia berezi bat
jarri du zentroan,
pertxak jasotzeko**

Iraunkortasun Proiektuan Urbilek garatutako 15 ekintzetako bat da.

Koopera-Caritasekin lankidetzan

Nazio Batuen Garapen Jasangarriko Helburuak (GIH)

babestuko dituzten beste 50 ekintza burutu nahi ditu Urbilek urtea amaitu baino lehen. Zeregin garrantzitsua izango dute eta eragin positiboa izango du ingurune naturalean, sozialean zein ekonomikoan. “Proiektu honek gure ondasun higiezinaren kudeaketa arduratsu eta jasagarriaren jardunbide egokia dakar, eta bereziki poztzen gaitu Koopera-Caritas erakundeak eta gure lokalak lankidetzan aritzeak”, adierazi du Leyre Lobato Urbileko kudeatzaileak.

Pardelak birziklatzeko eskaria GHK-ri

Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak osoigo.com plataformaren bidez abiarazi duen eskari honekin bat egiteko aukera dago. 500 atxikimendura heltzeko erronka finkatu dute. Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak pardelak eta higie-ne-produktuak birziklatzeko zerbitzua zergatik ez duen abiarazten galdetzen diote Jose Ignacio Asensio foru ingurumen diputatuari.

“Migrazioari maskarak erauzten” ikusgai Santuenean

Urbilek jasotako bi migrazio olatu nagusiei lotutako esperientziak, diskurtsoak biltzen ditu dokumentalak. Santuenean proiektatuko du auzo elkarteak larunbatean, ekainak 12, 19:30ean bertako frontoian. “Prozesu batean zein bestean, Santueneak hartu du etorkin gehien, eta horrek erabat baldintzatu du Santueneaz herritarrek duten kontzientzia”. Horregatik erabaki dute Santuenean emititzea.

“Foru Aldundiak hain modu nabarmenean urratu duen Bizikleta Bideen Planaren metafora dirudi”

Berez Donostia eta Mutriku lotu beharko lukeen bidegorria Luzuriagaino heltzen dela gogoraraztearekin batera, aipatu lantegi parean bidegorri proiektu honen berri ematen zuen seinalea kendu dutela salatu du Eguzkik, NOAUA!ra helarazitako argazki eta gutun baten bidez.

Luzuriaga inguruan ateratako ondoko argazkia helarazi dio Eguzkik NOAUA!ri. Donostia-Mutriku bidegorria Errekalde-Lasarte 1,34 km dioen Gipuzkoako Foru Aldundiaren kartela hesitutako

une batean zokoratua ikusten da. Argi dioen bezala, Donostian hasi eta Mutrikuraino heldu behar lukeen bidegorria dela adierazten zuen. “Eusko Trenen lan batzuk egiten hasi zirela eta, kartela kendu egin zuten”, adierazi dio NOAUA!ri gutun bidez aipatu talde ekologistak.

Kendu egin zuten eta azken asteotan, “zoko batean baztertuta aurkitu” zuten. Eguzkiren esanetan, “Foru Aldundiak hain modu nabarmenean urratu duen Bizikleta Bideen Planaren metafora dirudi”.

EuskoTren egiten ari den lanak amaitu ostean, “kartela lehengo lekuan jartzeko eskatuko dugu, bertan egon dadin, bere xumean, bete gabeko aginduen monumentu salataile gisa”.

Eguzkik gogorarazi duenez, Gipuzkoako Bizikleta Bideen Planak bizikletaz Donostiatik Mutrikura heltzeko bidegorri bat eraikitzea aurreikusi eta “guztiz bukatuta ez baina oso oso aurreratuta egon behar” lukeen arren, “Luzuriagaraino baino ez da iristen. Mutrikutik urruti, oso urruti”.



Luzuriaga inguruan ateratako argazki haxe helarazi dio Eguzkik NOAUA!ri.

Zirimararen izen-ematea hilaren 18an itxiko da



Egunotan, ate irekien saioak eskaini dituzte han eta hemen, datorren ikasturtean izena eman nahi duten umeek probatu ahal izateko.

Zirimarak datorren ikasturterako izen-ematea irekita dauka ekainaren 18ra arte. Azken astean ate irekien saioak eskaini dituzte hurrengo ikasturtean izen eman nahi duten umeek probatu ahal izateko.

Izen-ematea jada irekita dago, eta hilaren 18ra arte egongo da irekita.

Izen-ematea, online

Online egin beharko da prozesua: <http://forms.gle/gQa4Ukz-Fh8p7aPE7> gunean izen-ematea egin, eta ordainketa egin beharko da Udarregi Ikastolaren kontu korrontean: ES45 3008 0259 1121 8354 1214, eta azkenik, eskolakirola@udarregi.eus helbidera agiria bidali beharko da.

Eskola Kirolean partehartzeko derrigorrezkoa da kiroldegiko bazkide izatea

Horrez gain, Eskola Kirolean parte hartzeko derrigorrezkoa

IZEN-EMATEA

“Online egin behar da izen-ematea. Ordainketa egin beharko da ondoren Udarregi Ikastolaren kontu korronte zenbakian. Eta azkenik, agiria e-postaz igorri”

da Oiardo Kiroldegiko bazkide izatea, norbanako modalitatea edo familia modalitatean. Udalak egoera zaurgarrian dauden familientzako diru laguntza deialdia atera du beharra duten familientzat. Kiroldegiko abonamendurako hobariak ere badituzte. Horren inguruko informazio guztia udalaren webgunean dago eskuragai.

LH1etik LH4 arteko eskaintza prestatu dute datorren ikasturterako. LH1 eta LH2ko ikasleek saio bat edo bitan izena emateko aukera izango dute. Astearte eta ostegunetan izan-

go dira saioak eta lanketa desberdinak egingo dituzte: jolas hezi programa, psikomotritate, natur jarduerak, saio bereziak eta familia planak. LH3 eta LH4ko ikasleek ere saio batean edo bitan izena emateko aukera izango dute, saioak astearte eta ostegunetan izango direlarik. Jolasak, kirol alternatiboak, talde kirolak, banakako kirolak, natur jarduerak, saio bereziak eta familia planak eskainiko dizkiete.

Ekainaren 10ean, LH3koei zuzendutako bilera Udarregin

LH 1-4 ikasturteko ikasleei zuzenduriko eskolaz kanpoko eskaintza izango da 2021-22 denboraldian ere. Izen ematea orain bideratu behar da, ekainaren 18a baino lehen eta online. Xehetasunak asteotan eskaintzen ari dira antolatzaileak ate irekien saioetan, azkena, LH3koei zuzendua, ostegun honetan, ekainaren 10ean 16:30ean Udarregi Ikastolan.

Kolonbian bizi duten errepresio egoera salatu eta giza eskubideak babesteko eskaera

Maiatzaren 11n Eusko Legebiltzarrak Kolonbian bizi duten egoerari lotutako adierazpena maiatzaren 27ko osoko bilkurara eraman eta aho batez onartzea erabaki zuten udal taldeek.

Apirilaren 28an bizi-baldintza justuak exijitzeko protestak hasi zituztenetik “poliziarren indarkeria, eraildako eta zauritutako pertsonak, atxiloteta arbitrarioak eta indarkeria sexuala izan dira Indar Publikoaren eskutik”.

Eskaerak

Testuinguru honetan, eskaera argiak plazaratzen ditu adierazpenak: protestarien aurkako “errepresio basati eta bidegabea” salatzen du, “protestaren kriminalizazioaren” ondorioak pairatu dituztenei elkartasuna adieraztearekin batera; Gobernuari herritar guztien giza eskubideak bermatzea galdegiten dio; indar publikoak eragindako indarkeria gertakariak argitu eta erantzukizunak zehaztea; kolonbiarren “eskaerekin bat egiten dugu”, alegia bizi baldintzak benetan hobetu eta “justizia soziala duen herrialde bakeatsu bilakatzea”; nazioarteari kolonbiar herriari elkartasuna adierazi eta errepresioa eteteko beharrezko “ekintza diplomatiko eta politikoak” sustatzea ere galdegiten du.

Palestinarraren giza eskubideak babesteko adierazpena

Azken aldian irudi latzak heldu zaizkigu Gaza aldetik, Israelek lur eremu palestinar herriari eginiko erasoan harira. “232 palestinar hil dira, horietako 65 umeak”, 10 egunez eginiko ehunka bonbar-

daketen ondorioz. Hala gogorarazten digu, gai honi lotuta udalbatzak maiatzaren 27ko osoko bilkuran aho batez onartu zuen adierazpenak.

Batetik, “Israelek Palestinako herriari egiten dizkion

giza eskubideen urraketak salatzen ditu”; zehazkiago esanda, “Israelek lurralde palestinarrek legez kanpo okupatzea salatu eta gaitzesten du”, palestinar herriaren giza eskubideekiko elkartasuna

adieraztearekin batera. Eraso militarrek etetea eskatu eta “elkarriketarako zein negoziatorako bideei eustea”, eta Palestinara laguntza humanitarioa indartzea eskatzen die euskal erakundeei.

Elikaduran ohitura osasuntsuak txertatzeko saioa, gazteei zuzendua

Elikadurak geure bizi kalitatean duen garrantziaz jabetzeko, elikatzera koan ohitura osasuntsuak sustatzeko tailer berezia antolatu zuten maiatzaren 29an Artzabalen Udarregi Ikastolak eta Usurbil F.T.-k, Udarregi eta Usurbil F.T.-ko infantilekin; "Gosari Txef" izeneko ekimen berezia hain zuzen. Izenak dioen moduan, sukaldatze lanetan aritu ziren gaztetxoak; eguneko lehen otordua prestatu zuten. Jakiak erostetik hasita, prestaketa prozesu osoa landu zuten. Lucia Ucar eta Igor Gorriti dietisten laguntza jaso zuten, gosariok prestatzen aritu ziren gaztetxoek.



Usurbil FT taldeak tailer berezia antolatu zuten maiatzaren 29an Artzabalen.

Sorkuntzaren kateak etenik ez 2020-21 denboraldia borobiltzeko argazki eta bideo proiektioa antolatu zuten maiatza amaieran Usurbil F.T.-k kide gaztetxoekin. Proiektioa lanak haiek sortu zituzten, eta lanak saritzeko ekitaldia egin zuten Suteagin. Usurbil F.T.-ko musikariek girotu zuten hitzordua.



Usurbil F.T.-ko musikariek girotu zuten denboraldi amaierako ekitaldia.

Lanbide Heziketan aurrematrikulatzeko garaia

Ekainaren 18ra arte zabalik izango da, Lanbide Heziketa osoan aurrematrikulatzeko epea. Atallun kokatua dagoen Oinarritzko Lanbide Heziketako Udal Institutuan sukaldaritza eta jatetxe arloan, nahiz

ile-apainketa eta estetika arloan oinarritzko lanbide titulua eskuratzeko aukera eskaintzen dute. Zubietan kokaturiko Lanbide Heziketan erdi mailako zikloak eta goi mailakoak. Informazio gehiagorako:

Lanbide Heziketa:

lhusurbil.eus/943 364 600/
adkomunikazioa@lhusurbil.eus

Oinarritzko Lanbide Heziketa:

olh.usurbil.eus/ 943 360 465/
lhi@usurbil.eus

Lurraldebus gauerdira arte asteburuetan

Eusko Jaurlaritzak ekainaren 2tik indarrean duen dekretu berriak garraio zerbitzuak gauerdira arte eskaintzea baimentzen du. Lurraldebus-ek gaueko 00:00ak arte luzatu ditu gaueko zerbitzuak asteburuetan. Usurbili dagokionez, UK49 linean txertatu ditu aldaketak.

■ Ostiral gauetan Zumaia-tik azken zerbitzua gaueko 23:00etan (23:35 aldera Usurbilen) abiatuko da aurrerantzean.

■ Donostiatik azken zerbitzuak 23:15ean (23:45 aldera Usurbilen), eta 00:00etan (00:30 aldera Usurbilen) abiatuko dira. Larunbatetan aldiz, Zumaia-tik 23:00etan (23:35 aldera Usurbilen) eta 00:00etan (0:35 aldera Usurbilen), Donostiatik 23:30etan (00:00ak aldera Usurbilen) eta 00:00etan (0:30 aldera Usurbilen).

Informazio gehiagorako:

900 300 340
lurraldebus.eus

Motorzale bat hil da istripuz

53 urteko herritarra zendu zen moto istripuz, ekainaren 5ean, N634 errepidean, Sarikola inguruan. Larrialdi zerbitzuak erreanimatzen ahalegindu arren, istripu lekuan bertan zendu zen. Ordu batzuk lehenago, kilometro batera bi autoren arteko istripua izan zen baita eta ezbeharrak zenbait zauritu eragin zituen.

www.noaua.eus
USURBILGO ATARIA

ERAMATEKO!!!

·EGUNEKO MENUA
·KARTA

ARTZABAL
BASERRIA · JATEXEA

(ESKANEATU QR KODEA IKUSTEKO)

www.artzabaljatetxea.com 943 36 91 39

Otar-Goxo
Elkargaiak

Zubiaurrenea, nº2
943 36 55 81
20170 Usurbil

Memoriaren Bulegoa: “Informazio ugari lortzen ari gara”

Parte hartze fasean da 1936ko gerrak Usurbilen izandako ondorioak aztertzen ari den lantaldea. Parte-hartze faseak bi adar nagusi ditu: boluntarioen sarea eta informazio bilketa. “Herritarren parte-hartzea proiektua aberasteko behar-beharrezkoa”, nabarmendu du taldeak: “Memoriaren puzzlea osatzera gatoz, eta norberak nahi duena esan ahal izango du, libreki eta inolako presiorik gabe”. Kontaktuan jartzeko, 665 724 752 telefono zenbakira deitu edo emaila bidali behar da 36kogerra@usurbil.eus helbidera. Sare sozial propioak ere zabaltzen dituzte Twitterren, Facebooken eta Instagramen.

Herritarrek parte hartzeko hainbat aukera jarri dituzte mahai gainean. Boluntarioen sarea irekita dago. Boluntarioek hainbat modutara egin ditzakete ekarpenak: herritarrei elkarriketak egiten, gudalekuen berreskuratze lanetan, erakusketaren gauzapenean... Bi astean behin elkartzeko Memoriaren Bulegoan, udalak Artzabalaren duen lokalean: bilera irekiak dira, hau da, nahi duenak eta nahi duenean parte



Memoria Bulegoarekin kontaktuan jartzeko, 665 724 752 telefono zenbakira deitu edo emaila bidali behar da 36kogerra@usurbil.eus helbidera.

AITOR AZURKI

“Proiektu herritarra dela azpimarratu izan dugu beti: herritik sortua eta herriarentzat. Guretzat ekimenaren bizkarrezurra da parte-hartzea”

har dezake bertan. “Proiektu herritarra dela azpimarratu

izan dugu beti: herritik sortua eta herriarentzat. Hori dela eta, guretzat ekimenaren bizkarrezurra da parte-hartzea”, azaldu du Aitor Azurki kazetariak eta ekimeneko sustatzaileak.

Martxoan ekin zion boluntario sareak lanari, eta orduetik hainbat elkarriketa egin dituzte: “Grin handiko taldea dugu, oso gogotsu dagoena,

eta herritarrei galdezka ari dena han-hemenka. Informazio ugari lortzen ari gara, oso interesgarria eta garrantzitsua izango diren datuak, ondorengo faseetarako. Eta noski, Usurbilen gertatu zena xehetasun gehiagoz jakiteko ere”, azaldu du Aitzol Arroyo historialariak eta ekimenaren beste sustatzaileak.

Hilabete honetan informazio gehiago biltzen jarraituko dute

Informazioa biltzen ariko dira ekainaren 25era bitartean, herritarren parte-hartzearen bidez. “Gerra garaiko testigantzak, objektuak, argazkiak edo egunkari zatiak dituzten herritarrei deia egiten diegu gurekin harremanetan jartzeko. Izan ere, askotan objektu batek istorio bat ezkuta dezake; argazki batek

desagertutako pertsona baten pistaren bat, edo dokumentu batek gertatu zenaren xehetasun adierazgarriak eman ere”, azpimarratu du Azurkik.

Zentzu horretan, objekturik ez, baina testigantza eman daitekeela gaineratu du Arroyok: “Gerta daiteke pertsona batzuek gerraren inguruko gertakariak jakin eta testigan-

tza ematea, baina ez izatea objekturik. Eta alderantzizkoa ere izan daiteke. Gu irekita gaude kasu guztietara, eta denak aztertuko ditugu, noski”. Lehenengo bilera bat egin ohi dute harremanetan jartzen diren herritarrekin, eta, ondoren, behar izanez gero, testigantza filmatu ohi dute herritarren etxean edo Memoriaren Bule-

goan.

“Memoriaren puzzlea”

Era berean, gogorarazi dute “memoriaren puzzlea” osatzera datozela, “norberak nahi duena esan ahal izango du, libreki eta inolako presiorik gabe. Herritarren parte-hartzea behar-beharrezkoa dugu proiektua aberasteko”.

Basabi eta Kimu taldeek kontzertua eskaini zuten larunbatean

Jexux Artze Kultur Elkar-teak urtero antolatzen ditu ekitaldi kulturalak txalaparta eta euskal kultura zabaltzeko asmoz, eta Basabi eta Kimu taldeen kontzertuak maiatzaren 15ean egitekoak baziren ere, arazoak tarteko, larunbatean, hilak 5 eskaini zuten kontzertua Sutegin.

Lehenik, Kimu taldeak txalaparta erakustaldia eskaini zuen, hamar bat minutuz. Instrumentu tradizionalaren doinuak Sutegira hurbildutako dozenaka lagun aho zabalik utzi zituen. Gero, Kimu taldea osatzen duten txalapartariei musikari gehiago gehitu zitzaizkien, eta Basabi taldea osatuta, kontzertua eskaini zuten.



Kimu taldea osatzen duten txalapartariei musikari gehiago gehitu zitzaizkien, eta Basabi taldea osatuta, kontzertua eskaini zuten.

Txalaparta sustatzeko xedea

Jexux Artze Kultur Elkar-teak txalaparta indartu nahi du berriro Usurbilen, eta Zumarte Musika Eskolarekin bat egin-

da, txalaparta ikastaroa eskainiko dute. Aurrerantzean ere, Zumarten txalaparta erakustea da Kultur Elkar-teak bultzatu nahi duena.

Udarregiren eskultura protagonista izan zen igandeko bertso-saioan

Koldo Izagirrek Bertsoaren Harria (Lanku) liburua kaleratu zuen 2019ko maiatzetan. Bertsolariari eskainitako eskulturak ditu hizpide liburuak, eta hori lantzeko, eskulturak dituzten herrietan hitzaldiak eskaintzen ari da azken boladan. Igandean Usurbilen izan zen Maialen Lujanbio eta Amets Arzallus bertsolariarekin batera, eta Udarregiren eskultura hartu zuen ahotan. Dozenaka pertsona bildu ziren Sutegin puntako bertso-saioa entzun asmoz.

Ezagutzetatik abiatu, eta Euskal Herriko ondareari eskainitako liburuan badu lekuri Udarregik ere. Frontoiairen albo batean, Etxebeste kalean jarri zuten Udarregiri eskainitako eskultura, Matistaenea



Belaunaldiz belaunaldiko ibilbidea irudikatu zuten Maialen Lujanbiok eta Amets Arzallusek Sutegin.

etxearen aurrean. Eskultura hori izan zuten hizpide bertsolariak, bai eta beste hainbat herritan jarritako eskulturak ere. Bertsolari ezagun asko ditu Euskal Herriak, eta

lehenago ere makina bat izan zituen. Hori gogora ekarri, eta belaunaldiz belaunaldiko ibilbidea irudikatu zuten Lujanbiok eta Arzallusek Sutegin.

Presoen etxeratzearen aldeko Herri Krosa igandean

“Ibilian-ibilian etxerako bidean” dinamikaren baitan, presoen etxeratzearen aldeko Herri Krosa deitu du Usurbilgo Sarek igande honetarako, ekainaren 13rako. Lehiakorra ez, erabat aldarrikatzailea izango den hitzordua herritar orori zuzendua egongo da. 12:00etan abiatuko da Mikel Laboa plaza-tik. “Denei zuzendua, adin eta egoera fisiko guztientzat, nahi duenak korri, nahi duenak oinez, saltoka, bizikletaz patinez edota patinetez...”, zehaztu du Usurbilgo Sarek. Helburua “giro on eta alaiean euskal presoak etxera ekartzeko aldarrikapena zabaltzea da, ibilian-ibilian kanpainaren barruan”. Antolatzaileen esanetan, “denon parte hartzearekin errazago ekarriko ditugulako”, ekimenarekin bat egitera deitzen dituzte usurbildarrak.

Udajolaseko guraso bilerak

Uztailaren 5etik 30era izango dugun udako aisialdi ekimenari buruzko argibideak emateko guraso bilerak antolatu dituzte datorren astetarako, NOAUA!-k eta Usurbilgo Udalak. Udajolasen izena emana duten gaztetxoek gurasoentzat hiru saio guztira Sutegin:

Ekainak 14 astelehena

■ 18:30 HHkoentzat.

Ekainak 15 asteartea

■ 17:00 LH 1, 2 eta 3 mailakoentzat.

Ekainak 15 asteartea

■ 18:15 LH 4, 5 eta 6 mailakoentzat.

Euskal Herrian barrena sortzen

Euskal sorkuntza eta kulturegintzari bultzada emateko Udalbiltzak abian duen “Geuretik Sortuak” egitasmoan parte hartzen ari dira Euskal Herri luze zabaleko 26 sortzaile. Guztiek euren sorterritik kanpo Euskal Herriko beste udalerri batean egonaldia egiteko aukera izango dute hilabeteotan, aipatu egitasmo honen beka deialdiari esker. Egondaldi horietatik sortuko dira haien hurrengo literatura, antzezlan eta film laburrak.

Egitasmo honetara proposamena aurkeztu eta hautatuak izan diren artisten artean dira bi herritar; hurrenez hurren Etxarri-Aranatzen eta Artziniegan egondaldia egingo duten Yolanda Arrieta eta Ugaitz Agirre idazleak. Eta Usurbilen uztailean hiru astez gure artera etorriko da Itxaro Borda idazle ezaguna. Egondaldi horretatik jaioko da bere hurrengo sortze lana.

“40 urtez herri horretan ibiltzen naizela eta berehala pentsatu dut etxean izango nintzela”, gure artean hala sentituko



Uztailean hiru astez gure artera etorriko da Itxaro Borda idazle ezaguna.

ITXARO BORDA

Usurbilgo egondaldi horretatik, “biziko dudanari fidel izanez idatzi nahi dut”

dela adierazi zuen Udalbiltzak sortzaile bekadunekin berriki Oiartzunen egindako agerraldian. Badu zertaz idatzia “baina ez naiz seguru ideia horiek Usurbilen garatuko ditudan. Besterik ere etorriko zait Usurbilgo jendearekin egonez”.

Herri honen kultur arloko izaera sortzailea goraipatu

zuen. Gogoan hartu zituen Arzte, Zumeta, Mikel Laboa, eta ziur da inspirazio iturri izango direla berarentzat. Baita inguruotako paisaia ere. “Asko maite dut paisaia, natura”, ingurune honekin, leku ezberdinekin harremanak, “hortik idatziko dut”. Aipamena egin zion Zubieta gainari ere. “Jakín berri dut biziki hurbil egongo naizela Zubietako erraustegitik, pixka bat beldurtzen nau baina esan didate ez dela arazorik”, adierazi zuen umoretik. Aipatu zuenez, irudipena izan du “joango naizela egun bat Jakoba Errekondoren baratzean lan

egitera harekin, nik ere maite baitut baratza egitea”.

“Gure egunerokotasunetik aterako gara”

Sinbolismo hori guztia “moxtilan sartuta” etorri asmo du Itxarok uztailean Usurbila. Udalerri honetan biziko duen horretatik, “biziko dudanari fidel izanez” idatzi nahi du. “Ez dakit oraindik zer aterako den. Ez dakigu sekula”.

Hortxe du erronka berria, ezohikoa nabarmendu duenez. Bereziki orain, 14 hilabetez pandemiaren ostean. “Egia da idazle baten egunerokoa, konfinatua izatea dela. Bere bakartasunean idaztea, atera pixka bat, kafe bat hartu”. Udalbiltzaren “Geuretik Sortuak” egitasmoari esker, “gure egunerokotik aterako gara. Ezagutzen ez dugun herri edo hiri batera joango gara, eta hor bizita seguru naiz zerbait sortuko dela”. Jada harremanetan den Usurbilgo Udalerri eta Udalbiltzari “eskerrak bihotz bihotzez” emanez amaitu zuen bere hitzartzea. “Plazer handi bat hautatua izatea”.

Ugaitz Agirre: “Sortze lana ikuspegi nazionaletik garatzea zeharo interesgarria da, beharrezkoa ere”

NOAUA! Zerk bultzatu zintuen ‘Geuretik Sortuak’ egitasmoan parte hartzera?

Ugaitz Agirre: Interesgarria iruditzen zitzaidan eta proiektu bat pentsatu, garatu eta bidaltzera ausartu nintzen. Literatura lan bat sortzea beti da erronka bat. Kasu honetan, bitxia; toki batera joan, bertan egondaldi bat egin, ikusi han zer dagoen eta horri buruz idatzi. Etxean egoten naiz, pentsa-

zuten dut mila ideietan eta ez dut dokumentazio lan bat egin behar. Hau erronka bat da, baldintzetako bat herri hori erakustea delako, istorioaren girotea bertan egiten delako. Horregatik ezin du izan azaleko lan bat.

Artziniegan egingo duzu literatura egondaldia. Herri honetatik zerk deitu du zure arreta?

Proiektu bat aurkeztu behar

zen. Lapurreta bati buruzkoa da. Lapurreta Artziniegako sinbolo batean zentratu nahi dut. Bertan bada euskal kultura eta ondasunen inguruko museo interesgarria. Artziniegara bere arbasoen sustraian bila datorren atzerritarra litzateke protagonista. Ez dakit Artziniegan ideia aldatuko dudana. Batzuetan nahiko egoskorra naiz buruan sartzen zaidan ideia batekin eta bukaeraraino joaten naiz.

Zer ekarpen egingo dio lan honek zure ibilbideari?

Maila praktikokan, beste lan fisiko bat suposatuko du. Maila pertsonalago batean murgiltze lan bat. Lan antropologiko bat egin behar da eta horrek nire baitan beste dinamika bat sortzea suposatzen du, idazteko beste era bat ezagutzea. Ez dakit etorkizunean erabiliko dudana, ea nola ateratzen zaidan.

Yolanda Arrieta: “Deialdi honek lana errazten digu eta sortzaileok hori nahi dugu”

NOAUA! Zerk erakarri zaitu ‘Geuretik Sortuak’ ekimenetik?

Yolanda Arrieta: Gehiegi pentsatu gabe aurkeztu nuen proposamena. Aurten gainera hala nabil. Bi gauza praktiko; idazteko laguntza ematen digute eta lan egiteko aukera dut. Halakoak egin izan ditut lehen, Hendaiaiko Nekatoenean egon nintzen duela bospasei urte “Argiaren alaba” txukuntzen, neure kabuz Markiñako fraideen komentuan, Arantzazuko aterpetxean... Proiektu honetan ordea dena antolatua zegoen, talde egitasmo bateko partaide izateko aukera ere bazen. Nire web orriaren antzera, nitik gurako zubi horretan lan egitea gustuko dut.

Zure ibilbidearekin bat dator beraz proiektu hau.

Gustuko lana dut, baina bizimodua aurrera atera behar dut. Urteak bete arren baldintzak ez dira hobetzen. Gainera garai hau bizitzeko tokatu zaigu. Adiskidetu beharra dago halere tokatu zaigun aldi honekin, eta pentsamen-dua gauza ederretan jarri. Ni lanean nagoen artean, aktibo, indartsu nago eta aldarrikatu egiten dut gainera, sorkuntza dela une honetan eta beti, ondo, baikor eta osasuntsu egoteko modu bat.

Etxarri-Aranatzen egingo duzu egonaldia. Nola bideratu asmo duzu zure sortze lana?

Proposamen malgu bat egin genuen eta pertsonengan finkatu nintzen. Pertsona moduan zer da orain arte bizi izan duzun gauza handienetarikoa, horrekin zer galdu duzu eta irabazi duzu. Plan-teamenduan ere adierazten nuen nire estrategia izango dela hara joan eta bertako jende ezberdinarekin egotea.



Yolanda Arrietak Etxarri-Aranatzen egingo du ‘Geuretik Sortuak’ beka deialdiko egonaldia.

YOLANDA ARRIETA

“Ni lanean nagoen artean, aktibo, indartsu nago. Aldarrikatu egiten dut gainera, sorkuntza dela une honetan eta beti, ondo, baikor eta osasuntsu egoteko modu bat”

Haiek esandakoarekin, nik neuk ikusi eta sentitzen du-danarekin, nitik pasako dut, eta hortik sortuko den hori izango da emaitza. Fikzioa izango da, hori beraiei esan nien.

Denon artean Euskal Herria hobeto ezagutzen lagunduko diguzue.

Azken batean “Geuretik Sor-

tuak” da proiektuaren ize-na eta geurea denok gara. Euskarak batzen gaitu, geu egiten gaitu euskarak. Baina geu horretan ni desberdin asko daude eta aukera dut Etxarriko ni ezberdinak eza-gutzeko eta hori da niri interesatzen zaidana. Datorren urtean, bakoitzari beste herri batzuetara joatea egokituko zaigu geure lanak aurkeztera. Aberasgarria da. Sorkuntza-ren berri ematen diozu jende-ari, jendeak sormen proze-sua hurbilago ikusten du eta haien ikuspegia ematen dute.

Lagungarria iruditzen zaizu kulturagintzarako egitasmo hau?

Kultura sustatzeko modu asko egon daitezke, eta niri modu aktiboak gustatzen zaizkit.

Ekimen, beken, halakoen aldekoagoa naiz. Pandemiagatik iaz diru laguntzak egon ziren besterik gabe idazlea edo sortzailea zarelako, halakoak ere behar dira. Baina ekimen hau aktiboa da. Diru-laguntza bat dago, etxea jarri eta jana emango digute, horixe behar dugu lan egiteko. Lana errazten digute eta sortzaileok nahi duguna lana erraztea da. Lan zaindua, babestua izatea, laguntzari karitate puntu hori kenduta.

Lagundu zure lana egiteko, ez lagundu bizirauteko.

Une batean laguntza guztiak laguntza dira eta gustura hartzen dira baina hau, geroa begira beste batzuk koptatu dezaketen eredu bat da, lan egiten laguntzen baitigu.

Ostiral honetan abiatuko da Kultur Bira

S ortzaile eta kulturzaileen plaza izango dugu Usurbil ostiral honen abiatuko den Kultur Birarekin. Ekainaren 11tik 19ra luzatuko den lehen fase honetan, antzerkia, musika, bakarrikzeta, herriko dantzari eta artixtak igoko dira oholatza gainera.

Ekainaren 11tik uztailaren 17ra izango dugun Usurbilgo Kultur Birarako sarrerak, berri-
tu eta ziklo honi begira egokitu duten usurbilkultura.eus atarian eskura ditzakezue jada. Arduraz kudeatzeko deia egin du antolakuntzak. Berregokitu duten atarian duzue egitarau osoa, baita iragan asteburuan etxez etxe banatu zuten liburuxkan ere.



Iñorkiñak taldeak kontzertua eskainiko du larunbat honetan Aginagako Eliza Zaharraren atarian.

Kultur Birako lehen bi asteburuak

Ekainak 11, ostirala

■ 17:00 Orbeldi Dantzan II,

Artzabalgo frontoian.

Zehaztasunak: “Orbeldi Dantza Taldeko haurrek ikasturtean zehar landutako dantzak eskainiko dizkiete herritarrei. Euskal Herriko txoko askotako dantzekin gozatu ahal izango dugu”.

Oharra: eguraldiaren arabera, herriko frontoian.

Edukiera: 100 lagun.

Sarrerak: herritar bakoitzarentzat gehienez 4 sarrera.

■ 17:00 Trapuz Zarra:

“Turistreatzen” Artzabalgo frontoian.

Zehaztasunak: “Bidaia agentzia batek, “bakoitzaren nahierara sortutako bidaia birtualen” promozioa egin du. Emakume bat sarituko dute itsas bidaia birtual batekin eta bidaia zuzenean antolatuko dute. Bere fantasia guztiak askatuko dira bidaia honetan”.

Oharra: eguraldiaren arabera, herriko frontoian.

Edukiera: 100 lagun.

Sarrerak: herritar bakoitzarentzat gehienez 4 sarrera.

■ 20:00 Antton Telleriaren

“Nekatutak” ikuskizuna Aginagako Eliza Zaharraren atarian.

Zehaztasunak: “Nekatutak izeneko ikuskizunean, Antton Telleria zuzentasunaren mugak esploratzen saiatuko da”.

Edukiera: 65 lagun.

Oharra: herritar bakoitzarentzat gehienez 2 sarrera.

■ 20:00 Iñorkiñak herriko

taldearen kontzertua Aginagako Eliza Zaharraren atarian.

Zehaztasunak: “Gurean izango dugu Iñorkiñak, herriko triki pop taldea. Doinu alai eta itsaskorrekin zipriztinduko dute Kultur Biraren lehen asteburua. Berrikuntzekin datoz gainera, Natali Izagirre eta Ixak Arrutiren parte hartzearekin”.

Edukiera: 65 lagun.

Oharra: herritar bakoitzarentzat gehienez 2 sarrera.

Ekainak 13, igandea

■ 19:00 “Suharra” dokumentala

Sutegin.

Zehaztasunak: “Galtzeko zorian dagoen bizitza berreskuratzea beharrezkoa den momentu honetan, inoiz azaldu gabeko gure kulturaren parte diren bertako ganadu suharren historia kontatzen duen dokumentala dugu honako hau”.

Edukiera: 78 lagun.

Oharra: herritar bakoitzarentzat gehienez 2 sarrera.

Ekainak 18, ostirala

■ 17:30 Orbeldi Dantzan II,

haurren emanaldia

Artzabalgo frontoian.

Zehaztasunak: Orbeldi Dantza Taldeko haurrek ikasturtean zehar landutako dantzak eskainiko dizkiete herritarrei. Euskal Herriko txoko askotako dantzekin gozatu ahal izango dugu.

Edukiera: 100 lagun.

Oharra: herritar bakoitzarentzat gehienez 4 sarrera.

Ekainak 19, larunbata

■ 20:00 Artixten Gaua

Aginagako Eliza Zaharraren

atarian, Txokoalden eta Usurbilgo skate parkean.

Zehaztasunak: “Aldi berean egingo diren hiru emanalditan herriko artixtetaz gozatzeko aukera paregabea izango da. Ekitaldi desberdinak izango dira, parte-hartze zabalekoak, formatu txikian. Hiru ekitaldietako izen emateak, aparte egin beharko dira”.

Edukiera: 65 lagun Aginagan, 70 Txokoalden, 70 skate parkean.

Oharra: herritar bakoitzarentzat gehienez 2 sarrera.

Sarrerak:

Ekitaldi bakoitza baino bi egun lehenagora arte usurbilkultura.eus atarian.

Antolatzaileak:

Kalezar, Aginaga, San Esteban, Atxegalde, Santuenea eta Usurbilgo jai batzordeak; Xauxar Txosna Batzordea; Ziortza K.E.; Hitz-Aho Udarregi Ikastolako guraso elkarteak; Usurbilgo Udala; NOAUA! K.E.

Olatu artifizialik ez Donostian!

Donostiako Udalak olatu artifizialen instalazio bat eraitzeko asmoa du Martutene auzoko Atondegai gainan, itsasotik lau kilometro eskasera. Instalazioak ondorio kaltegarriak izango lituzke bai ingurumenarentzat, bai Gipuzkoako surfariantzat, eta zazpi elkarte naturzalek eta hainbat surfarik 'Antondegi Berdea - Olatuak Itsasoan' kolektiboa sortu dute proiektua geldiarazteko. Haiekin bat gatoz usurbildar asko.

Arrazoi ugari eta sendoak eman dituzte (www.antondegiberdea.eus), baina labur esanda: proiektu honek ez dio surf komunitatearen eskaera bati erantzuten, enpresa batek sustatzen du eta enpresak badauka antzeko azpiegitura bat Aizarnazabalen.

Antondegi Donostiako gerriko berdean dago. Azeriak, azkonarrak, ginetak, katagorriak eta gardulak dabilta bertan, eta 109 hegazti-espezie, hala nola galzorian dagoen miru gorria. Han sei futbol zelairen tamainako instalazio bat eraikitzea, harako bidean beste bi hektarea porlan sartzea, autoen joan-etorria eta abar, ingurune osoa hondatzea litzateke.

Instalazio hauek sarrera garestia dute, eta surfaren artifizializazioa sustatzen dute, surfak naturarekin daukan lotura eta surfaren balioak eta kultura desi-



"Instalazio hauek surfaren artifizializazioa sustatzen dute, surfak naturarekin daukan lotura eta surfaren balioak eta kultura desitxuratuz".

SURFLARIAK

"Proiektu honek ez dio surf komunitatearen eskaera bati erantzuten, enpresa batek sustatzen du eta enpresak badauka antzeko azpiegitura bat Aizarnazabalen"

txuratuz. Gainera, bertan surf egiten ikastea errazagoa denez, surfarien masifikazioa areagotzen dute gertuko hondartzetan. Guztiok dugu surf egiteko eskubidea, noski, baina mugatuak dira hondartzak, eta nahikoa arazoekin

bagabiltza lehendik ere. Zer sartu nahi gaituzte, "igerilekuak egin / surfari gehiago sortu / igerileku gehiago egin" sorgin-gurpil ero batean?

Bestalde, esan dezagun argi: itsasoaren aldameneari olatu artifizialak sortzea zentzugabea da erabat. Are gehiago klima larrialdi eta trantsizio energetiko garaio-tan.

Horregatik guztiagatik, Donostiako Udalari eskatzen diogu, mesedez, olatu artifizialik ez egiteko Donostian. Eta garaiz gabiltza! Donibane Lohizunerako aurreikusita zegoen enpresa beraren antzeko proiektu bat geldiaraz-

tea lortu dute duela gutxi, eta aurretik Katalunian eta Malagan ere geldiarazi zituzten.

Usurbilen dagoeneko surfari komunitate txiki bat badugu, eta askoz ere gehiago gara naturzaleak, Gipuzkoa jasagarri eta gozagarri bat nahi dugunak.

Horregatik, mesedez, Usurbilgo herritar guzti-guztiei eskatu nahi dizuegu proiektu hau gelditzearen alde sinatzea. Mesedez sinatu: change.org/p/antondegiberdea

Unai Aizpurua, Aritz Zabaleta, Anartz Esnaola.



EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
943 370 008


ADA
-MASAJEAK-
633 36 22 33
erreka-txiki 1, USURBIL

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
·eguneko menua ·asteburuko menua
·karta ·oilasko erreka, pizzak..
JASOTZEKO EDO ETXERA ERAMATEN DUGU!
Zubiaurrenea 6, Usurbil. Tel: 943 37 03 44

Senior neskak txapeldunordeak izan ziren Iruñean jokatu zen igoera fasean

Bi neurketa irabazita, hirugarrena bi goleko tarteagatik soilik galduta, txapeldunorde amaitu dute Usurbil K.E.-ko senior neskek asteburuan Iruñeko Anaitasunan jokatu duten Ohorezko Bigarren Mailara igotzeko estatu mailako sektorea. Euskadiko txapeldunek lehen postuan sailkatu beharra zuten igoera gauzatzeko. Etxekoek, Anaitasunakoek eskuratu dute maila aldaketa. Usurbilgoek denboraldi bikaina osatu dute.

Sailkapena

- 1-Helvetia Anaitasuna: 6.
- 2-Urbil Usurbil K.E.: 4.
- 3- AD La Jota: 2.
- 4-BM. Pereda: 0.



Lau taldek osatutako multzoan lehiatu dira Nafarroako Anaitasuna, Aragoiko A.D Jota eta Kantabriako Lieberbank BM Peredaren aurka. Bigarren amaitu zuten eta igotzea lortu ez bazuten ere, pozik itzuli ziren herrira.

Kadete mutilak hirugarren izan ziren Granollersen jokatu zen txapelketan

Granollersen izan dira asteburuan Usurbil K.E.-ko kadete mutilak. Estatu mailako klub arteko txapelketan parte hartu dute. Euskadiko txapelketan hirugarren postuan sailkatu zen taldeak postu bera eskuratu du baita Katalunian. 32 talde lehiatu dira fase honetan. Zortzik baino ez, multzo bakoitzeko sailkapen buruan zen taldeak eskura zezakeen denboraldiko klub onena izendatzeko ekainaren 16tik 20ra jokatu diren finalerako txartela.

Sailkapena

- 1-Granollers: 5.
- 2-Helvetia Anaitasuna A: 4.
- 3-Usurbil K.E.: 2.
- 4-C.B. Balonmano Mislata A: 1.

Kadete neskak ere, garaile

Berriki, Usurbil K.E.-ko kadete neskak Gipuzkoako txapel-dun izendatu zituzten.



Euskadiko txapelketan hirugarren postuan sailkatu zen taldeak postu bera eskuratu du Katalunian.

Aranerreka, zikin berriz

Herritar batek NOAUA!ri ohartarazita, Aranerrekara gerturatu eta itxura hauze zuen ekainaren 3an. Artzabal inguruko zenbait puntutan uraren mugimendua gerarazten zuen zikinkeria zuen errekek. Ez da lehen aldia.

“Eukaliptoaren eragina ingurumenean” hitzaldia

Anerreka Ingurumen Elkarteak antolatuta, ekainaren 17an 18:30ean Sutegiko auditorioan. EHUKo Zientzia eta Teknologia fakultatean irakasle katedradun Arturo Elosegik izango da hizlaria. “Eusko Jaurlaritzak eskatuta, Eukalipto landaketen ingurumen ondorioak EAEn eta inguruetan txostena idatzi zuen Arturo Elosegik, Aitor Larrañaga, Juan Arizaga eta Carlos Cabidorekin batera. Txosten horretan jasotako mamia jorratuko du Arturo



Ekainaren 3an, Artzabal inguruko zenbait puntutan uraren mugimendua gerarazten zuen zikinkeria zegoen.

HITZALDIA SUTEGIN

“Eukaliptoaren inguruko hitzaldia, Anerrekak antolatuta, ekainaren 17an 18:30ean Sutegin”

Elosegik Usurbilen eskainiko duen hitzaldian”, iragarri du

Anerrekak. Hitzordurako izena hilaren 15a baino lehen eman beharko da, usurbilkultura.eus atarian.

“Gipuzkoan sartzen ari da eukalipto, iaz, urte bakarrean, alegia, bikoiztu egin zen landatutako azalera. Ez da erraza, baina, eukaliptoak egurgintzan

duen errentagarritasunari aurre egitea, eta jabe pribatuek haren alde apustua egin duten heinean, ugaritzen ari dira espezie horrek okupatutako eremuak”, ohartarazi du Anerrekak.

Kanpoko enpresen interesa

Erakundeek jokabideari dagokionez aipatzen dutenez, “EAEko foru aldundiek diote ia ezinezkoa dela partikular bati debekatzea eukaliptoak landatzea. Gipuzkoan propio ukatzen zaizkie dirulaguntzak pinudiak eukaliptoarekin ordezkatu nahi dituztenei. Bizkaian eta Gipuzkoan, jabetza pribatukoak dira baso gehienak, eta horrek eragin izan du monolaborantzarako joera bat. Bertako baldintzen gatik, interesa azaltzen ari dira Euskal Herritik kanpoko egur enpresa handiak, hemengo lur-sailak erosteko”.

Zaintzari buruzko parte-hartze prozesuko talde eragilea lanean da

Nola zaindu eta zainduak izan nahi dugun, zainketaz hausnartu eta hitza hartzeko aukera izango da aurrerantzean, Usurbilgo Udalak bideratuko duen parte-hartze prozesuan. “Muina landuko duen” talde eragilea osatu eta lanean da jada. Udalak helarazitako ondoko argazkian ikus dezakezuen moduan, maiatza amaieran, talde eragile hau lehen aldiz bildu zen Potxoenean. Guztira 20 lagunekoa taldea, “zaintzak profesionalki zein pertsonalki bizi dituzten herritarrak eta erakundeak” tartean.

“Zaintza ertz guztiak barne hartu ditu talde horrek. Tartean dira zaintzaile profesionalak (zentroetan zein



Udalak berri eman duenez, hilero, hilean behin bilduko dira, uztailen eta abuztuan izan ezik.

UDALA

“Taldea eragileaz gain, herritar gehiagok parte hartzeko aukera izango dute”

etxe partikularretan lan egiten dutenak), familiako

zaintzaileak, zaintza lanetara dedikatzen diren enpresak, Usurbilgo komunitatearen ordezkariak, zaintza zerbitzuetako erabiltzaileak, Emagin taldea (prozesuan ikuspegi feminista bermatzeko) eta erakundeetako ordezkariak (udal ordezkari tekniko zein

politikoak, Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak eta Matiakoak)”, Udaletik zehaztu dutenez.

Udalak berri eman duenez, hilero, hilean behin bilduko dira, uztailen eta abuztuan izan ezik. “Lehenengo bilerara elkar ezagutzeko baliatu dute, batik bat, eta, ondoren, talde txikietan egin dute lan, zaintza kontzeptuaz pentsatzean bakoitzari burura zer datorkion konpartituz. Bileran ateratakoak eta Matiak beste herrietan izan dituzten esperientzietan zer antzekotasun izan ziren hausnartu zuten, amaitzeko”.

Talde eragile honen saioez gain, herritar gehiagok parte-hartzeko aukera ere izango dutela iragarri du Udalak.

EHZ festibalera joateko sarrera bat dugu, NOAUA!k bazkideen artean zozketatzeko

Aurten 25 urte egingo ditu Euskal Herria Zuzenean Festibalak, eta Irisarrin izango da aurten go edizioa, uztaileko lehen asteburuan, hau da, hilaren 2an, 3an eta 4an. NOAUA!k festibalera joateko sarrera bat zozketatuko du bazkideen artean ekainaren 18an, ostiralez.

Joan zen urtean ez zuten Festibala ospatzeko aukerarik izan osasun egoera medio, baina aurtengoan 25. urteurrena ospatzeko izango da festa Irisarrin. Chill Mafia, Ruper Ordo-rika, Potato, Kuartz eta Torheit taularatuko dira, besteak beste, eta artista gehiago ere izan daitezke oholtzan. Programazioan antzerkia, zirkua edota dantza ikusgarriak ere tarteko izango dira. Horien artean, Hatz(a)mar-ka kantua eta antzerki ikuskizuna; Pirritx, Porrotx eta Mari Motots; Tio Teronen semeak dantza taldea; Andoni Ollokiegi bakarlaria...

Irisarriko Ospitalean tailer, hitzaldi eta mahai inguru anda-



Uztailaren 2an, 3an eta 4an ospatuko da Irisarrin.

EUSKAL HERRIA ZUZENEAN

“EHZ topagune, saretze eta sozializatzeko espazio bat izatea nahi dugu”, jakinarazi dute antolatzaileek

na antolatu dituzte, hausnarke- ta eta eztabaidarako. Bost gai nagusi landuko dituzte: artea- ren funtzioak, etxebizitzaren arazoa, krisi kapitalista eta ekologikoa, Euskal Herriko Na- zio Askapen Mugimendua eta EHZren 25. urteurrena. Horrez gain, eraso sexisten aurkako tailerrak ere egingo dituzte.

“EHZ topagune, saretze eta

sozializatzeko espazio bat iza- tea nahi dugu”, jakinarazi dute antolatzaileek, euskara komu- nikatzeko eta harremantzeko hizkuntza gisa lehenetsiz. Hiru egunetarako sarrerak ehz.eus webgunean egongo dira esku- ragarri 35 euroren truk. Egu- nez eguneko sarrerak ere laster jarriko dituzte salgai.

Osasun neurriak

Osasun-egoeraren ondorioz, festibalera sartu ahal izateko osasun agiriren bat aurkeztu beharko da: 48 orduko tartean eginiko PCR proba bat edo txertatuta egotea baieztatzen duen agiria.

“Usurbil astindu”

Sortuk eta Ernaik etorkizun hurbilaz hausnartzeko anto- laturiko zikloa amaitzeaz da.

Ekainak 12, larunbata

■ 11:00 “Independentziaren aldeko indarrak batzen” ma- hai ingurua Sutegin.

■ Gidaria: Maider Lazkano.

■ Parte hartzaileak: Ainhoa Etxaide eta Joseba Permach.

Ekainak 19, larunbata

■ 11:00 “Herri kooperatiba. Burujabetzarako erreminta”, Mikel Laboa plazan.

■ Hizlaria: Gorka Julio.

■ Energia, etxebizitza eta eli- kadura burujabetza proiektu- en kale erakusketa.

Izen ematea aurrez helbide honetan:

<https://labur.eus/ce00V>

Oharrak:

Aforoa kudeatzeko izen ema- tea beharrezkoa izango da. Ekitaldien lekuak alda dai- tezke, halakoetan sare sozia- len bidez eta izena eman- dakoei aurrez jakinaraziko zaie.

Udaberri Astea azken txanpan Zubietan

Udaberri Astea ospatzen hasi ziren duela aste- bete Zubietako Gura- so Elkartek antolatuta. Haur zein helduagoentzat ekitaldiz beteriko astea izan zuten joan zena, baina oraindik ere ekital- di pare bat geratzen dira aste honetan.

Pasa den asteartean, ekai- nean sartzearekin bat ekin zieten Udaberri Asteari “Kan- tukantoi” ipuin-kontaketa saioekin. Ostegunean, berriz, ginkana egin zuten, eta ko- miki tailerra aurreikusita ba-



Haur zein helduagoentzat ekitaldiz beteriko egunak izaten ari dira.

zuten ere, ostegun honetan egingo dute saio hori, hilaren 10ean.

Ekainak 10, osteguna

■ 17:00 Magia ikuskizuna eta 18:00etan komiki tailerra.

Ekainak 11, ostirala

Antzerki eguna:

■ 17:30 Antzerkia LH 1-2.

■ 18:15 Antzerkia LH 4-5-6.

Oharrak:

■ Ekintzak errebote plazan edo frontoian egingo dira, egu- raldiaren arabera.

■ Ekitaldietako edukiera: 100 lagunentzako lekua.

■ Izen ematea: ekitaldi bakoi- tza baino bi egun lehenago be- randuenez, doan, usurbilkultu- ra.eus atarian.

■ Antolatzailea: Zubietako Gu- raso Elkartea.

ETXEBIZITZA**Salgai**

Etxebizitza salgai, kale Nagusia 39, udaletxe aurrean. 58m (bi logela) eta garaje itxia prezioan barne. 649850515.

Etxebizitza salgai Kalezarren: 79m² berritua, 2 gela, komuna, sukaldea, jangela, egongela, harrera. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m² garajea aukeran. 686462705

Alokairuan

Usurbilgo gizezko bat naiz eta alokairuan pisu bat hartuko nuke Usurbil edo inguruan. 659185107

Alokatzeko etxe baten bila ari naiz. Bi pertsona gara eta txakurra daukagu. 675189500

MOTORRA**Salmenta,
garajeak**

Ezinduentzako motorra salgai. 2018ko abuztuko motorra, gutxi erabilia. 625701616.

Garage bat alokairuan, 22m² Santuenean. 671547567.

Atxegalden garaje bat nahiko genduke alokairuan edo erosteko. 628498326

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Emakume bat behar da umeak zaindu eta etxeko garbiketa egiteko; Familia zamarik gabekoa. Haurren zaintzan esperientzia izatea beharrezkoa. Nahiago da euskara ondo menperatzen dakien pertsona izatea. 638738505

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali CV info@quantum.eus helbidera

Txiribogan asteburueterako lan-gileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629 951 931.

LANPOSTUAK**Lan eskaerak**

Pertsona helduak, garbiketak,

peoi lanak edo pintore laguntzaile moduan aritzeko prest, gizezko bat naiz. 622747833

Pertsona helduak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest, neska bat naiz. 622747833

Arratsetarako lan bila nabil. Euskalduna naiz, usurbildarra. Haurren zaintzan edo etxeko lanetan aritzeko prest. 61627 3785.

Neska orduka eskaintzen da etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko. Titulu soziosanitarioarekin. 612 433 485.

Neska orduka eskaintzen da etxeko lanetarako edo haurrak zaintzeko. 631 89 49 90.

Adinekoak zaintzeko lan bila nabil. Geriatria ikastaroa egina dut. Orduka nahiz egun osoz lan egiteko prest. 604 349 970.

Nikaraguako neska arduratsu eta ondradua, garbiketa lan eta adinekoen zaintza lanetan aritzeko erabateko prestasuna. Esperientziaduna. 602 481 854 / anis-

za@gmail.com

Pertsona helduak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest dagoen emakume bat naiz. Ordu-tegi aldetik disponibilitate osoa. 608935674 (Anjela)

Garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko neska bat naiz. Ordukako lana edo interna moduan 603315126.

Orduka edo interna moduan lan egingo nuke pertsona helduak zaintzen, etxeko lanak edo garbiketa lanak egiten 620081572

Interna moduan pertsona helduak zaintzeko prest. 14 urteko esperientzia, erreferentzia onak. Profesionaltasun ziurtagiria. 667907196

BESTELAKOAK

Herritar batek perikito bat topatu eta udaltzaintetan utzi du. Telefonoz dei dezake (943 36 11 12) edo udaltzaintetara joan, zuzenean, perikitoaren bila.

10 urteko mutil bati ortodontzia-aparatua galdu zaio herrian. Norbaitek aurkituko balu deitu dezala hona: 600 768 570.

Etxe bateko altzariak saltzen ditut. 600 360 809.

Josteko remalladora Donna 800 salgai. Berria dago, biz-pahiru aldiz erabilia soilik. Prezioa: 270 euro. 652 702 237 (Zorione).

Filologia ikasketak ditut, ingeleseko klaseak ematen ditut bakarka edo taldean. Maila guztiak. 660845780 / bou-chrahajar@outlook.com

Sagarrik txikitzeo egurrezko makina bolantearekin salgai. 678082127 (Aitor)

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Atalluko Garbigunean, doan hartu daitezke. Astelehenetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00.

**Zorionak Josu eta Lorea!**

2 urte luze pasa ondoren, azkenean iritsi da zuen eguna!!! Bidea luzea eta gogorra izan da baina mereziko du. Ondo ondo ospatuko dugula ziur gaude eta beraz zuek ere disfrutatu, horretarako da eguna eta. Ondo pasa eta muxu asko asko familia osoaren partez!!! Gora ezkonberriak!!!

Zorionak Amets!

Ekainaren 12an, gurasoen ezkontza egunean, 4 urte beteko ditu gure etxeko xomorro txikiak. Merienda ederra egingo dugu. Ondo ondo pasa eta ospatu zure eguna eta txokolatzeko 4 muxu handi handi familia osoaren partez.

**Heriotzak**

**Jose Maria
Illarramendi
Irure**

Ekainaren 2an
hil zen
69 urterekin

**Heriotzak**

**Sagrario
Encinas
Sanchez**

Ekainaren 4an
hil zen
79 urterekin

**Heriotzak**

**Candida Pinero
Hidalgo**

Ekainaren 5ean
hil zen
90 urterekin

**Heriotzak**

**Joxe Manuel
Ikutza Unanue**

Ekainaren 5ean
hil zen
53 urterekin

**Goardiako farmaziak**

Osteguna 10 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Ostirala 11 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Larunbata 12 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Igandea 13 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Astelehena 14 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Asteartea 15 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Asteazkena 16 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian dituzue ikusgai.

Osteguna 17 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Ostirala 18 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Larunbata 19 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Igandea 20 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak ireki-
ta egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
ETXEBARRIA AZUETA, AITZIBER
Andre Kalea, 48 "Cuevas"
943 55 17 93

Agenda ekaina

10 osteguna

- **Zirimara:** ate irekien saioa Usurbilen 16:30-18:30 Udarregi atarian. LH3 maila.
- **Zubieta Udaberri Astean: magia ikuski-zuna** 17:00etan Zubietako errebote plazan edo frontoian. Izen ematea: ekainaren 8ra arte doan, usurbilkultura.eus atarian.

11 ostirala

- **Zubieta Udaberri Astean: Antzerki Egun** 17:30ean, LH 1-2. 18:15ean, LH 4-5-6. Izen-ematea: ekainaren 9ra arte doan, usurbilkultura.eus atarian.
- **Kultur Biraren hasiera.** Informazio gehiago, 12. orrialdean.

12 larunbata

- **"Usurbil astindu" zikloa** Sutegin. 11:00etan mahai-ingurua: "Independentziaren aldeko indarrak batzen". Parte hartzaileak: Ainhoa Etxaide eta Joseba Permach.

Ilustrazio erakusketa Artzabalen

Egunotan Artzabal tabernara hurbiltzen bazarete, Iñaki Arrillaga oriotarraren "Arraunean munduan zehar" erakusketa aurkituko duzue. Ilustrazio-bilduma estilo minimalista batez egina dago.

Sortzaileak zehaztu duenez, "ordenagailuz landuta daude, teknologia berrienak erabiliz. Aurpegiak eta gorputzak era minimalistean eginak dira: irudi sinpleak erakusten dituzte eta asko zaintzen dute gorputzaren kokapena eta postura, arraunketaren edertasuna eta gogortasuna islatzeko". Ilustrazioak



Iñaki Arrillagaren ilustrazioek arraun mundua irudikatzen dute.

ikusgai eta salgai izango dituzue asteotan.

Independentzia aztergai "Usurbil astindu" zikloan

Ekainak 12, larunbata

- 11:00 "Independentziaren aldeko indarrak batzen" mahai-ingurua Sutegin.
- Gidaria: Maider Lazkano.
- Parte hartzaileak: Ainhoa Etxaide eta Joseba Permach.

Izen ematea aurrez helbide honetan:

<https://labur.eus/ce00V>
Antolatzaileak: Sortu eta Ernai.

Bi ikastaro eskainiko dituzte egunotan KzGunean

Ekainak 15-24, 16:00-18:00.

- "Kudeatu Google aplikazioekin".

Ekainak 25-30, 16:00-18:00.

- "Facebook. Konektatu lagun eta senideekin".

Informazioa:

943 023 684
tutor.usurbil@kzgunea.net

Datozenak

Udaleku feministen aurkezpena

Buruntzaldeko Neska* Gazteen udaleku feministak antolatu dituzte uztailaren 9, 10 eta 11rako. Ekimena aurkezteko saioak deitu dituzte eskualdean. Usurbilgoa, ekainaren 14an 18:00etan.

Zumarteren ikasturte amaierako kontzertuak

Ekainak 15, asteartea

- 18:00 Musika-txokoa, Joxe Martin Sagardia plazan.
- 19:00 Saxo-taldea, Joxe Martin Sagardia plazan.
- Oharra: euria eginez gero, emanaldiok Askatasuna plazan 18:00etan.

Ekainak 16, asteazkena

- 18:30 Kontzertuak Sutegin.

Ekainak 17, osteguna

- 18:00 Musika Mintzaira eta Banda, Mikel Laboa plazan.
- 19:30 Abesbatza, Mikel Laboan.
- Oharra: euria eginez gero, emanaldiok Askatasuna plazan egingo dira.

Ekainak 18, ostirala

- 18:30 Taldeen saioak, Artzabalen. Sarrera: gonbidapen bidez. Informazio gehiago: zumarte.eus Antolatzailea: Zumarte Musika Eskola.





IZEN EMATEA: online ekainak 7-18

<https://forms.gle/gQa4UkzFh8p7PaPE7>



Izen ematea burutzeko ordainketa egin behar da Ikastolako
ES45 3008 0259 1121 8354 1214 kontu korrontean
eta agiria bidali eskolakirola@udarregi.eus helbidera

Oharrak:

- Eskola Kirolean parte hartzeko derrigorrezkoa da Oiarde Kiroldegiko bazkide izatea, izan norbanako modalitatean edo familia modalitatean.
- Udalak egoera zaurgarrian dauden familientzako diru laguntza deialdi bat atera du. Kiroldegiko abonamendurako hobariak ere baditugu. Guzti honetaz informazioa Udalaren webgunean aurki dezakezue.

LH 1-2ko ESKAINTZA

Asteko saioak. 1 edo 2 (astearte eta ostegunak)

- Jolas hezi programa • Psikomotrizitatea
- Natur jarduerak • Saio bereziak
- Famili planak

LH 3 - 4ko ESKAINTZA

Asteko saioak. 1 edo 2 (astearte eta ostegunak)

- Jolasak • Kirol alternatiboak
- Talde kirolak • Banakako kirolak
- Natur jarduerak • Saio bereziak • Famili planak

GELDITU GABE JARDUNEAN!



Edertu zaitez!



Ballancer[®]

presoterapia

Kliniko eta zientifikoki
irtenbide frogatua
mediku eta estetika
arloetarako modaltzen den
erantzuna




Munalurra 2, Usurbil 943 571 680



Ane

ILEAPAINDEGIA

Artzabal



JUBILATUENTZAT AUKERA ONENA

Artzabal baserria 688 75 96 96

KALITATEZKO PRODUKTUEKIN ESTILISMOA ETA ESTETIKA LANTZEN DITUGU

INTZA

ILEAPAINDEGIA
ESTETIKA ZENTROA

Ile mota guztiak. Pertsona mota guztiak.



Eguerdian irekita! Nagusia 8, Usurbil - Tel: 943 36 36 41



Elexpe

ileapaindegia


- Betileen tintaketa eta permanentea
- Estetika • Tatuaiak
- Zutikako eta etzandako solarium-a

Muna Lurra 12, Usurbil • 943 370 462

GOLDWELL

ELUMEN

ileapaindegia



mistoa

9.00etatik 19.00etara zabalik

BIOLOGO BATEK MIKROSKOPIOZ EGINDAKO BURU-AZAL ETA ILEAREN AZTERKETA

KONTSULTA DOAN!

Zubiaurrenea 4, Usurbil • 943 361 951